

## **IKUSKIZUN ESZENIKOAK HELDUAK 2024**


### **OTSAILAK 2 (ostirala)**

**TU TUM PLATZ, Jon Plazaola, Txalo produkzioak. (eus): 24/02/02**

Jon Plazaola bere sorlekura, bere sehaskara itzuli da “Tu-Tum, Platz!” umorezko ikuskizun berriarekin. Taula gainean bere lehen agerraldia egin

zuenetik 23 urte pasa diren honetan berriz ere “Stand Up” formatuko bakarrizketari heldu dio, hori bai; 23 urte zaharrago, 23 urte jakintsuago eta 23 urte kabroiago.

Ordubete izango dugu, umorez betetako kolpez-kolpe baten ondoren ardo ona bezela urteen poderioz hobera egin duen ala ardo txarra bezela ozpindu den jakiteko.



## 1 MARZO (viernes)

MIERDA DE CIUDAD. *Olatz Gorrotxategi (cast)*: 24/03/01

Una obra sobre el fracaso. Una generación que busca su lugar. El punk ha llegado. Un duelo. El silencio existencial del western. Un renegado que ya no quiere ser él. Ni naiz naizena. La diáspora vasca en Idaho y en Nebraska. Un vaquero escupiendo. Tres personas contándonos una historia que empezó en los 80 y termina hoy, aquí, delante de tí. Indios Sioux defendiendo el folklore vasco. Un cartel de 'Se busca'. El desalojo de un Saloon. Otra ocupación. Clint Eastwood diciendo que no quiere ir a la mili. Es 1880. La pólvora y la goma 2. Nuklearrik ez, ez hemen ez inon ez. La fiebre del oro y el cierre de Astilleros. Una historia sobre el desaliento del pensamiento y las luchas colectivas. El fin de una generación. Mucha policía poca diversión. La derrota. Las reservas de los Estados Unidos de América. Los reductos del punk. Reducidos ambos a resistencias. El horizonte. La gente que viene detrás de mí. Una vasta pradera aún por colonizar, detrás de mí. Hoy. Es. El. Futuro. Que cantaba La Polla Records.



## **APIRILAK 5 ABRIL (ostirala-viernes)**

**BERRIKETAN, *La pulga flamenco* (musika dantza): 24/04/05**

Berriketan hitzak elkarrekin hizketan aritzea esan nahi du, eta proiektu honek ere uztartze kulturala bilatzen du. Euskal herriko sustraietan sortutako txalapartaren soinuak, bertso eta kantuak, eta flamenkoaren pasioa, Dantza eta kantuek osatutako binomio orekatua.

Ariman, Berriketan taldearen ikuskizun berrian, txalapartaren edo ttakunaren soinuekin osatutako buleria aurkitzen da; kantu herrikoi bati takoneoak alaitasunez laguntzen dio; gitarra eta kexu flamenkoek, zortzikoekin batera, xuxurlatu eta sentimenduak marrazten dituzte.



### **3 MAYO (viernes)**

**GUAPA, *El mono habitado* (cast): 24/05/03**

A principios del S.XX los espectáculos de fenómenos tenían gran éxito, el público pagaba por ver “criaturas monstruosas”. Ahora uno de estos seres, Mary, a quien anuncianan como “la mujer más fea del mundo”, y la mujer barbuda, vuelve a subirse al escenario para contar su historia, para descubrirnos que eran mujeres que reían y disfrutaban, que tenían deseos y despertaban pasiones. Un espectáculo sobre la belleza que no se ve: Sobre personas que miran a personas sin verlas. Sobre diferencia e igualdad.



## EKAINAK 7 (ostirala)

. HIRU KORTSE, ZUKRE ASKO ETA BRANDI GEHIEGI *Kamikaz kolektiboa.* (eus)

“Nor naiz ni, zuk fikzionatzen ez nauzunean?

Nor zara zu, ni fikzionatzeko baimenik ez duzunean?


Izan gaitezke gu?

Zer desikasi beharko genuke, nola, nondik.”

Emakume 1, emakume 2, emakume 3, kanpai hotsekin batera, puntual elkartzen dira merienda mahai baten inguruan. Tisana, pasta, azukre eta pastelitz betetzen dituzte gorputzak, beraien egunerokotasunaz hitz egiten duten bitartean.

Ba ote dakite, beraien bizitza beste norbaitek kontatua izandela? Zein begiradatik izan dira sortuak emakume hauek? Nork idatzi du tinta lodiz historia? Historia kontatu diguten bezalakoa da?

Nork mugitzen ditu emakume hauen kortseen hariak?



## 6 SEPTIEMBRE (viernes)

LA SED DEL MINOTAURO (cast): 24/09/06

*“Esperar es como soñar despierto”.*

*Aristóteles*

LA SED DEL MINOTAURO habla de antihéroes, de seres atrabilidos y algo desesperados, que afrontan el miedo que sienten a perder la batalla por conquistar su felicidad; habla de hombres y mujeres resistentes, y de gran corazón. Lo hace a través de la luminosa fuerza que surge del encuentro entre ellos. La idea es construir una *bella colisión* entre historias que se cruzan, un acontecimiento de transformación: entre el tiempo de un inminente naufragio, y el mágico instante de un rescate.

Todo sucede en una pequeño café-bar cerca de la estación de algún lugar donde hace frío; unas pocas mesas, ventanas que dejan ver la calle o al menos los pies de quienes la transitan, una barra suficiente para los clientes que la habitan y una máquina de discos... Al fondo un pequeño almacén y una puerta que da al baño. Del local entran y salen sus clientes, *buscando el amor y huyendo de un mundo* que a penas les considera, un mundo injusto, ajeno y algo hostil con nuestros queridos personajes. Pero hoy no es un día cualquiera. Hoy es un día de grandes acontecimientos.



## URRIAK 4 (ostirala)


### KANPORA SARTZEN *Txalo produkzioak (eus) 24/10/04*

UMOREZ BETETAKO emanaldi gordiña.

2013ko martxoaren 11n, Xabinek seropositiboa zela jakin zuen; egun hartan, dena aldatu zen. Hamar urteren ostean, Xabinen eta Birusaren arteko harremanari buruz hitz egiteko garaia heldu da. Euren arteko elkarbizitzaren testiguak izango gara obra honetan, azken hamarkadan gertatutako pasadizoak errepasatuz. Pilulak, estigma, lotsa, kontsultak, beldurra, kulpa, bakardadea, osasun mentala, terapia, pandemia... Nola eragin du birusaren etorrerak Xabinen eguneroko bizitzan?

Lehen pertsonan idatzitako istorioa da KANPORA SARTZEN. Sentimendu gordinen eta umorearen arteko oreka bilatzen duena, eta seropositibo baten egunerokotasunean gertatzen diren kontuak azaleratu nahi dituena.


Lortuko al dute Xabinek eta Birusak kanpora sartzea?



## **8 NOVIEMBRE (viernes)**

### **YERMA, *La dramática errante (cast)* 24/11/08**

ELLA es una reputada artista bilbaína.  
Su marido, un exitoso hombre de negocios.  
Su hermana, una mujer atropellada por la vida.  
Su madre esa persona que nunca la abrazó...  
Y su ex alguien con quien ser madre fue una posibilidad.  
Este es el escenario de ELLA, nuestra YERMA.  
Un escenario donde esta joven mujer fluye como un como un tequila en Puerto Escondido, como un bhang lassi en Goa, como una cerveza fría en Alexanderplatz.



## ABENDUAK 5 (osteguna)

### KORTXOAREN DILEMA Tartean *teatroa* (eus), 24/12/05


Endreduzko thriller politikoa bi aktorerentzat, espazio eta denbora unitate bakarrean.

IRAKASLEA (70 urte), Etika eta Filosofia Politikoan katedradun jubilatua da, ezkertiarra, polemikoa eta itzal handikoa. Noam Chomsky iberiar bat.

Pronostiko gaiztoko minbizia dauka, baina sendatzeko aukera sortu da ezustean. Aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan eman duen radioterapia ekipamendu batean tratamendua har dezake. Iritzi publikoak goraipatu egin du donazio hau. Bakan batzuk, ordea, gaitzetsi egin dute. Hauen ustez buru zuritze bat da, trilero baten trukua, legez ordaindu beharko lituzkeen zergak ez ordaintzeko, eta bere enpresetan agertu diren trapu zikinak estaltzeko. Aberatsaren amarru honen salatzaileetako bat, nabarmenetakoa, Irakaslea izan da.

Orain erabaki latza hartu behar du: bere printzipioekiko leiala izan eta bizitza salbatzeari uko egin; ala prakak jaitsi eta filantropoari ipurdian pot egin.

Gaur harta du erabakia. Publikoki iragartzera doan unean, ezezagun bat, bere IKASLEA (60 urte) izandako bat agertuko zaio ezustean. Aspaldiko kontuak garbitzera dator.



## BONOAK - BONOS

Bonuak urtarrilean erosi ahal izango dira kultur etxearen:

Urtarrilak 15

- 15, astelehena: 10:00 – 13:30 / 15:00 – 18:30

\* 2023ko bonoa mantendu nahi dutenentzat. Nahitaezkoa da 2023ko bonoa aurkeztea.  
Para los que quieren mantener el bono.

- 17, asteazkena: 10:00 – 13:30 / 15:00 – 18:30

\* 2023an bonoa izanda aldatu nahi dutenentzat. Nahitaezkoa da 2023ko bonoa  
aurkeztea.

Los que tienen bono y quieren cambiar de sitio.

- 20, larunbata: 10:30 – 13:00

\* Aurten bonoa lehen aldiz erosi nahi dutenentzat eta euskarazko emanaldiatarako  
bonoa erosi nahi dutenentzat.

Nuevos abonados



Urretxuko udala